

**PARTAIDETZA PROZESUA  
BIRGAITZE ALORREAN  
AZKEN ONDORIOEN TXOSTENA**

# AURKIBIDEA

|            |                                                                                                              |    |
|------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| <b>1.-</b> | <b>AURKEZPENA</b>                                                                                            | 3  |
| <b>2.-</b> | <b>PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO IKUSPEGI METODOLOGIKOA</b>                                                     | 4  |
| 2.1.       | Birgaitze-tailerrak: erakundeekin, entitateekin eta pertsona adituekin egindako esku-hartze parte-hartzailea | 4  |
| 2.2.       | Hiritarrek kontrastea: informazio eta hiritarren partaidetzarako karpak kokatzea                             | 6  |
| 2.3.       | Birgaitze-lanetarako laguntzetako pertsona onuradunei bideratutako esku-hartze parte-hartzailea              | 7  |
| 2.4.       | Finka-administratzaileei bideratutako esku-hartze parte-hartzailea                                           | 8  |
| <b>3.-</b> | <b>PARTAIDETZA PROZESUAREN EREMUAN GARATSUTAKO JARDUEREN EMAITZAK</b>                                        | 9  |
| 3.1.       | Birgaitze-tailerretan azaldutako ondorioak eta ekarpenak                                                     | 9  |
| 3.2.       | Hiritarrek kontrastea: informazio eta hiritarren partaidetzarako karpak kokatzea                             | 13 |
| 3.3.       | Birgaitze-lanetarako laguntzen pertsona onuradunen balorazioak eta ekarpenak                                 | 14 |
| 3.4.       | Finka-administratzaileen balorazioak eta ekarpenak                                                           | 16 |
| <b>4.-</b> | <b>AZKEN ONDORIOAK ETA IKASKUNTZAK</b>                                                                       | 17 |

## 1.- AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jo du berrikusi eta eguneratzea, bai EAEko birgaikuntzaren arloan lehentasunezko jarduketa-esparru nagusiak gidatzen dituen araudia, bai herritarrei eta jabekide-erkidegoei eraikinak zaintzeko, hobetzeko eta premia berrietara zein sektorearen egungo egoerara egokitzeko ematen zaizkien laguntzak. Finantza eta higiezinaren krisialdiaren ondoren, sektorearen egoerara eta etxebizitza-merkatura egokitzea da helburua.

Horretarako, 2013-2016 aldirako Etxebizitza Plan Zuzendari berriaren eremuan, Etxebizitza Sailburuordetzak lan-programa burutu du partaidetza- prozesuaren bitartez, arakatzeko zer beharrian sortu den Euskadin eraikinak birgaitzearen eta hiria eraberritu eta berroneratzearen alorrean, krisi ekonomikoa eta finantzaketara iristeko arazoak ikusita.

Dokumentu honek laburki jasotzen ditu ikuspegi metodologikoa eta burututako esku-hartzeetan lortutako emaitzak. Esku-hartze horietan erakundeek, entitate eta pertsona adituek, hiritarrek oro har parte hartu dute, eta zehazki: Birgaitze Tailerrak, Herritarren partaidetzarako informazio-karpak euskal udalerrri ezberdinetan, Birgaitze-lanetarako diru-laguntzen pertsona onuradunei inkesta-prozesua eta Finka-administratzaileei galdeketa-prozesua.

Aipatu behar da burututako esku-hartze bakoitzari dagokion txostena eskuragarri dagoela [Etxebizitzaren Euskal Behatokiako webgunean](#), [xede horrekin egindako partaidetza-webgunean](#) -eta [Irekian](#)-, eta zehazki:

- 1. Dokumentua: Birgaitze-tailerren ondorio-txostena  
[http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb\\_dl=31](http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb_dl=31)
- 2. Dokumentua: Partaidetza prozesua birgaitze alorrean. EAEko 5 udalerritan (Gasteiz, Eibar, Durango, Sestao eta Pasaia) egindako proiektu pilotua. Karpen txostena 2015eko Uztaila  
[http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb\\_dl=32](http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb_dl=32)
- 3. Dokumentua: EAEko birgaitze-lanetarako laguntzetako pertsona onuradunei egindako kontsulta prozesuaren emaitzak EAEn  
[http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb\\_dl=28](http://etxebizitza.blog.euskadi.net/?wpfb_dl=28)
- 4. Dokumentua: Finka-administratzaileei egindako kontsulta prozesuaren emaitzak EAEn

## 2.- PARTAIDETZAN OINARRITUTAKO IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Kapitulu honetan aurkezten da burututako esku-hartze bakoitzeko aipamen laburra, aplikatutako alderdi metodologiko nagusiak jasoz.

### 2.1. Birgaitze-tailerrak: erakundeekin, entitateekin eta pertsona adituekin egindako esku-hartze parte-hartzailea

#### Helburua

Esku-hartze honen helburua izan da gogoeta egitea denen artean, birgaitze-eremu integratuen eta eremu andeatuen kudeaketa erregulatzen duen araudia aldatzeko planteamenduari buruz. Zehazki, hiru gai-esparruren inguruan eztabaidatu da:

- Birgaitze-lanetarako laguntzen aldaketa-planteamendua.
- Aldaketa-planteamendua birgaitze-eremu integratuetarako eta lehentasunez esku hartzeko eremuetarako.
- Zeharka, aipatutako gaien buruzko informazioa, komunikazioa eta sentsibilizazioa.

#### Metodologia

- Lan-mahaiak antolatu dira, non dinamizatzailerak gogoeta-gaiak aurkeztu eta jorratu baitituzte parte-hartzaileekin. Aurkeztutako gaien eta bestelako gai osagarri batzuen buruz haien balorazioak eta ekarpenak aurkezteko aukera izan dute parte-hartzaileak. Bestalde, tailerretako dinamizatzaile-taldeen beste iradokizun eta ekarpen batzuk posta elektronikoz bidaltzeko aukera ere egon da: [participaciónvivienda@euskadi.eus](mailto:participaciónvivienda@euskadi.eus); eta [partaidetza-webgunearen](#) eta [Irekiaren](#) bidez.
- Bi lan saio egin dira: lehenengoa Gasteizen (ekainaren 16an) eta bigarrena Bilbon (ekainaren 23an). Guztira 55 pertsonen hartu dute parte tailerretan.

EAEko birgaitze-eragile nagusien arteko hausnarketa partekatura bideratu da esku-hartze hori: birgaikuntza esparruan adituak, teknikariak eta profesionalak: Birgaitzeko Hirigintza Sozietateetakoak, arkitekto-elkargoetakoak, aparejadore-elkargoetakoak, finka-administratzaile elkargoetakoak, Eusko Jaurlaritzako zenbait sailenak, eta Eraikune, SEA-UNECA eta Tecnaliakoak, besteak beste.

*Gasteizko eta Bilboko tailerren argazkiak*



## 2.2. Hiritarrek kontrastea: informazio eta hiritarren partaidetzarako karpak kokatzea

### Helburua

Euskadiko udalerri ezberdinetan ezagutzera ematea birgaitzeko laguntzetan, orobat hiria berri eta berroneratzekoetan, planteatzen diren aldaketak eta, batez ere, bertatik bertara jakitea herritarrek zer kezka eta interes nagusi eta premiazko dituzten alor horretan.

### Metodologia

Informazio- eta herritarren partaidetzarako 5 karpa kokatu dira aukeratutako udalerrietako toki estrategikoetan; horretarako jarraitu diren irizpideak izan dira: oinezkoen igarotze handiko gunetara hurbiltasuna eta birgaitze-premia handiagoa duten auzoetara eta eremuetara hurbiltasuna.

Karpak kokatu diren udalerriak ondorengoak dira: Gasteiz, Eibar, Durango, Sestao eta Pasaia. Landa-lana 2015eko ekainaren 29 eta uztailaren 1aren bitartean egin da.

### Partaideak

Aukeratutako udalerrietako hiritarrei 399 inkesta egin zaie.



## 2.3. Birgaitze-lanetarako laguntzetako pertsona onuradunei bideratutako esku-hartze parte-hartzailea

### Helburua

**EAE**n birgaitze-lanetarako laguntzetako pertsona onuradunei egindako ikerketa **kuantitatiboa**, laguntza horiei eta baita Eusko Jaurlaritzak inplementatu nahi dituen aldaketa- eta hobekuntza esparruei buruz duten iritzia eta balorazioa ezagutzeko xedearekin.

### Metodologia

Galdera-sorta egituratuaren bidezko inkesta telefonikoak, 2013an eta 2014an, eraikinen eta etxebizitzan birgaitzerako partikularrei eta jabeen erkidegoei zuzendutako diru-laguntzen onuradunei egindakoak.

Landa-lana 2015eko Ekainaren bigarren hamabostaldian zehar egin da.

### Partaideak

Guztira 860 inkesta egin dira.

## 2.4. Finka-administratzaileei bideratutako esku-hartze parte-hartzailea

### Helburua

**EAE**n Finka-administratzaileei egindako ikerketa kuantitatiboa, birgaitze-lanetarako laguntzei eta baita Eusko Jaurlaritzak inplementatu nahi duen aldaketa-eta hobekuntza esparruei buruz duten iritzia eta balorazioa ezagutzeko xedearekin.

### Metodologia

Galdera-sorta egituratuaren bidezko inkesta telefonikoak, 60 Finka-administratzailei egindakoak.

Landa-lana 2015eko Uztailaren 23an bukatu zen.

### Partaideak

Kontsulta-prozesu hori aurrera atera da Administratzaileen Elkargoen partaidetzarekin, eta horri esker posiblea izan da hogeit bat administratzaile elkargokideei buruzko informazioa lortzea; gainerako 60 administratzailei, aldiz, zuzenean egin zaie kontsulta.

### 3.- PARTAIDETZA PROZESUAREN ERMUAN GARATUTAKO JARDUEREN EMAITZAK

Jarraian, esku-hartze parte-hartzaile bakoitzean jasotako emaitza nagusiak laburki jasotzen dira.

#### 3.1. Birgaitze-tailerretan azaldutako ondorioak eta ekarpenak

##### A.- Tailerretan parte hartzearen eremuan, birgaitze-lanetarako LAGUNTZEN ALDAKETAK kontrastatu ziren, ondorengo emaitzak jasoz:

- Birgaitze-programen eta arauen eraginkortasuna gehitzeko zeharkako osagarri gisa, **etxebizitzaren eta, nagusiki, eraikinetako denen elementuen mantentze-eta hobekuntza-kultura indartzea**. Finka-administratzailearen figura funtsezkoa da herritarrak birgaikuntzaz sentsibiliza ditzaten.
- Birgaitze-lanetarako laguntzetan proposatzen diren aldagetekiko adostasun-maila altua da ondorengo alderdiei dagokienez:
  - Laguntzak jaso ditzaketen **eraikinen antzinasuna igotzea**, 10 urtetik 20ra pasatuz (salbuespenak salbuespen).
  - **Energia-eraginkortasuna dela-eta eraikinen kontserbazioa, irisgarritasuna eta egiturak hobetzeko ematen diren laguntzak parekatzea**.
  - Bost urteren buruan **etxebizitza besterentzeko debekua ezabatzea**, elementu pribatuak birgaitzeko diru-laguntzak ematen diren kasuetan.
  - **Laguntzak eskuratzeko errenta-maila igotzea, aurrekontuaren zenbatekoaren arabera betiere** (21.000 eurotik 25.000 eurora pasatuz), eta haren kalkulu-sistema sinplifikatzea, bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera bereizketa ezabatuz, eta errenta estandarizatua erabiliz diru-sarrera haztatuak kalkulatzeko.
  - **“Ohiko etxebizitza” kontzeptua hedatzea, etxebizitza hutsak** eta mugikortasun-arazoak dituztenenak ere **birgaitze-programetara biltzeari** dagokionez.
- Modu orokorragoan, birgaitze-lanetarako ematen den laguntzaren **jarraipena egiteko premian** bat datoz, hau da, zorrotzago kontrolatzeko beharra birgaikuntza-lana egin behar duten enpresen trazabilitatea eta diruz lagundutako lanen egikaritze-baldintzei ekinez (segurtasun-baldintzak, aseguruak, etab).

- Tailerrak amaitu eta gero, **aldaketen osagarriak diren beste ekarpen eta proposamen batzuk** jaso dira partaidetzarako irekitako beste bideren bitartez; haien artean ondorengoak nabarmen daitezke:

- Teknikariak (arkitektoak eta/edo aparejadoreak) birgaitze-lanetan jardutea diruz laguntzeko ildo berezia inplementatzeko aukera aztertzea.
- Ezabatzea hasierako aurrekontuarekiko % 10eko igoeraren muga, hartara aurrekontu babesgarria berrikusi eta egindako benetako gastura egokitzeko.
- Laguntza-espedientea gehiegi luzatzen bada (18 hilabete izan daiteke, adibidez, gehienezko epea) eta eskatzaileak hala proposatzen badu, eskariaren baldintza ekonomikoak berrikusteko aukera irekitzea.
- Errendimenduaren araberako finantziazio-bide bat ezartzea BHSen funtzionamendurako.
- 2/2006 LEGEA, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa osatzea, bertan ezartzen den “ondasun higiezinaren kontserbazioa eta birgaitzea oro har” lehendik dagoen hirira zabalduz, egoera hori sortu berri den hirigintzaren ez bezalakoa dela erreferentziazat hartuta, lehendik dauden eraikinei dagokien balioa emanez.
- Kontrol-mekanismoak abian jartzea, araudi osoa betetzen dituzten esku-hartzearen justifikatzeko agiriak eskatuz; horrela, intrusismoa eta profesionaltasun eza ekidingo lirarteke.

#### **B.- BIRGAITZE-EREMU INTEGRATUETARAKO ETA LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUETARAKO (LEHE) ALDAKETA-planteamenduari ekarpenak**

- Adostasun handia egon da eta **positiboki baloratu dute gehienek** Andeatutako Eremuak-en ordez, Lehentasunez Esku Hartzeko Eremuak **deitura-aldaketa hori**, zenbait kasutan *de facto* aplikatzen ari baita.
- **LEHE eskaerak modu homologatuan egiteko base estatistikoa indartzean** bat datoz denak. Horretarako, interesgarritzat jotzen da araudian informazio estatistikoaren iturriak zehaztu daitezela, informazio hori lortzea ahalbidetu behar dutenak; adierazle horietakoren bat faltako balitz, informazio hori eskuratzeko tresnak eta moduak homologatzea eta denen artean finantzatzea proposatzen da.
- LEHE eskaera egiteko, **denentzako irizpide berdinek aplikatzearen egokitasunari dagokionez, bi planteamendu ezberdin daude:**
  - 1. planteamendua: baldintzen eta irizpideen ezinbesteko objektibazioa, LEHE izendapena jasotzeak dakartzan laguntzak eskuratzeko lurraldeak eta eremuak lehenesteko.
  - 2. planteamendua: beste eragile batzuk planteatzen dute malgutasunaren premia eremu bat LEHEtarako sailkatzeko.

- LEHE izendapena jasotzeko **baldintzei eta irizpideei** buruz zera planteatzen da:
  - Eremua izendatzeko eskatzen den batez besteko adina (65 urte) jaitea.
  - Familien errentari lotutako baldintza berriro aztertzea, oso zaila delako informazio hori eskuratzea eta kalitate eskasekoa delako.
  - Berrurbanizazio-lanekin (lan horiek urbanizazio-balioaren % 40tik gorakoa izan behar dutela adierazten duena) lotutako baldintza kentzea, nolabaiteko penalizazioa ezartzen baitie urbanizazio-lanak egin dituzten edo egin behar dituzten udalei.
  - Beste irizpide eta baldintza osagarri batzuk sartzea:
    - Etxebizitza hutsaren gaineko tasa.
    - Aktibitatek ezaren tasa (langabezia-tasaren baldintza osagarri gisa; hartara, kontuan hartuko litzateke jada enplegu bila ari ez den eta lan egiteko adinean dagoen populazioa ere).
    - Ingurumenari lotutako baldintzak eta berroneratze premiei lotutako antzeko beste alderdi.
    - Kofinantziazio-mailari eta alor publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanaren bultzadari lotutako baldintzak (herritarren konpromisoa eta laguntza ere aintzat hartu eta, hartara, jarduera horien bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioa bermatzeko eta areagotzeko).
  - Birgaitze integratuko areatzat jotzeko eskaera egiteko beharrezkoa da gizarte eta hirigintza alderdien azterketa; azterketa horretan oinarritzen diren eraikuntza-inbentarioaren eskakizunak osatzea proposatzen da, energia- eta iraunkortasun-irizpideak kontuan hartuz, adibidez, 317/2002 Dekretuan zehaztutako eranskinei beste bat gehituz..

### C.- **INFORMAZIOAREN, KOMUNIKAZIOAREN ETA SENTSIBILIZAZIOAREN inguruko ekarpenak**

- **Laguntzak eskatzeko behar den informazioa eskuratzeko bide ohikoena eta laguntza horiek eskatzeko prozesuetan eta izapideetan eragile nagusiak Birgaitzeko Hirigintzako Sozietateak (BHS) direla** adieraztean adostasuna dago; ondoren, Finka-administratzaileak kokatzen dira eta, haien eza kasuetan, Udalek betetzen dute eginkizun hori; zentzu honetan, azken horien rola indartzeko premia aipatzen da.
- **Birgaikuntzaren eremuan esku hartzen duten eragile anitzen arteko koordinazioa hobetu daitekeela** uste da, eta asko dira koordinazio hori oztopatzen duten faktoreak: laguntzen sakabanaketa, zeinak erakunde batzuk besteei gainjartzea eragiten baitu; erakundeen arteko bateratasunen zehaztasunik eza; terminologia teknikoa; eskariak aurkezteko epe desberdinak; dokumentazio bera eskatzea zenbait erakundek, eta abar.

● **Erakundeen arteko koordinazioaren hobekuntzari** dagokionez, zera planteatzen da:

- Erakundeen arteko plan integratua egitea, zeinak eraginkortasuna areagotu eta baliabideak hobeto kudeatzen laguntzen duen.
- Erakunde arteko koordinazio organoa ezartzea, estatu- eta autonomia-mailako arauak interpretatzeko irizpide bateratua mantendu ahala izateko.
- Eskarien izapideak sinpleago bihurtzea eta erabakiak azkarrago hartzea.
- Beste erakunde batzuen laguntzei eta diru-laguntzei buruzko informazioa dakarten estekak jartzea webguneetan.
- Diru-laguntzen mapa egitea, eta birgaitze-lanetarako dauden laguntza-mota guztiak han biltzea, edozein delarik ere haiek ematen dituen erakundea
- Sektorako eragileen arteko bilera-maiztasuna areagotzea eta partaidetzarako eta lankidetzarako foro berriak zabaltzea.
- Finka-administratzaileen profesionalizazioa indartzea, trebakuntza- edo sentsibilizazio-jardueren bidez (Administrazioak berak zehaztutako dokumentu-euskarrietan oinarrituz), herritarrek birgaikuntzaz sentsibiliza ditzaten.
- Lan pedagogikoa egitea herritarrekin, hauek birgaikuntzaren premiaz sentsibilizatzeko. Beren etxebizitzaren birgaitze-lanaz ez ezik, haien dauden eraikinetako denen elementuenaz ere sentsibilizatu behar dira herritarrek.

### 3.2. Hiritarrekin kontrastea: informazio eta hiritarren partaidetzarako karpak kokatzea

**A.- Diru-laguntzei buruzko ezagutza-mailari eta hedatzeko bide gustukoenei dagokienez**, azpimarratu behar da karpetara hurbildu diren pertsonen erdia baino gehiagok laguntza horiek ezagutzen dituztela (% 57,8), eta informazio-iturri nagusiak dira komunikabideak (% 36), Finka-administratzaileak (% 28) eta senideak/ezagunak (% 24). Diru-laguntzei buruzko informazioa hedatzeko bide gustukoena komunikabideak (% 34), postontzietan banaketa (% 19) eta Finka-administratzaileak (% 16) direla adierazten da oro har.

**B.- Diru-laguntzen lehentasunari dagokionez, hiritar gehienak irisgarritasuneko (% 51) eta kontserbaziorako (% 40) laguntzen alde agertu dira**, eta neurri askoz ere txikiagoan, energia-eraginkortasuneko laguntzen alde (% 7). Hamar pertsonetatik zazpik adierazi dute Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzeak haien etxebizitzak birgaitzera animatuko lituzkeela. Halaber, % 52k adierazi dute finantza-mailegua eskatu beharko luketela haien etxebizitzaren birgaitze-lanen gastuei aurre egiteko.

**C.- Jarduera honetan parte hartu duten pertsonen adostasun-maila altua adierazi dute diru-laguntzen sisteman egin nahi diren aldaketei buruz planteatutako aukera ezberdinekiko, emaitzek erakusten dutenez:**

- Hirien alde zaharretan edo eremu andeatuetan kokatutako etxebizitzaren birgaitzeari diru-laguntza handiagoa emateko neurriarekin (% 73 alde daude) eta baita 20 urte baino gehiagoko antzintasuna duten eraikinetan diru-laguntzak biltzeko neurriarekin (% 75) adostasun-maila altua.
- Laguntzaren ordainketa, finantza-erakundeei baino, pertsona onuradunei zuzenean ematearen aldekoak dira inkestaturen % 81.
- Inkestaturen % 91ek uste dute laguntza guztiak leihatila bakarrean biltzeak izapideak erraztuko lituzkeela.
- Bizigune edo ASAP programen bitartez alokairu publikora zuzenduko diren etxebizitzak prest jartzeko diru-laguntzak ematearen aldekoak dira inkestaturen % 72.

### 3.3. Birgaitze-lanetarako laguntzen pertsona onuradunen balorazioak eta ekarpenak

**A.- Diru-laguntzei buruzko ezagutza-mailari eta horien kudeaketa-prozesuei buruzko balorazio orokorrari dagokionez, lortutako emaitzek ondorengo ondorioak bota dituzte:**

- Elkarriketatutako pertsonen balorazio positiboa egiten dute jasotako informazioaren kalitateari buruz (10 puntutatik 7), eta komunikabide tradizionalek (posta arrunta, banaketa postontzietan, etab.) funtsezkoak izaten jarraitzen dute onuradun potentzialen talde adierazgarri batentzako.
- Laguntzak eskatzeko beharrezko informazioa eskuratzeko bide nagusia Finka-administratzaileak (% 42) eta, neurri txikiagoan, erkidegoetako auzokoak, presidentea nagusiki (% 20,5), dira.
- Laguntzak eskatzeko prozesuetan eta izapideetan Finka-administratzailea da ere eragilea nagusia (% 43), pertsona onuradunen talde esanguratsu batek (% 36,1) laguntza horiek eskatzen dituzten izapideak era autonomoan egin ohi dituen arren.
- Indarrean dauden izapide-prozesuekiko eta laguntzei buruzko prozesuen inguruan eskura dagoen informazioarekiko asebetetze-maila adierazgarria hauteman da (10 puntutatik 7); alderdi ekonomikoekiko asebetetze-maila, aldiz, baxuagoa da (5 puntu).

#### **B.- Planteatutako aldaketei buruzko balorazio espezifikoak**

Aldatu nahi diren alderdiekin eta irizpideekin adostasun-maila esanguratsua aipatu da:

- **Diru-laguntza mailak lan motaren arabera parekatzeari** eta beste finantza-sistema batzuei dagokionez:
  - o Onuradun gehienek egokitzen jotzen dute irisgarritasun-lanen (% 49,9) eta, neurri txikiagoan, kontserbazio-lanen (% 42,5) diru-laguntza mailak indartzea. Onuradunen gutxiengo batek, aldiz, uste du lehentasuna eman behar zaiola eraikinen eta etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko lanen finantzaketari (% 7,5).
  - o Diru-laguntzen finantzaketa osagarria eskuratzeko aukera-maila oso murrizta da: birgaitzeko diru-laguntzen pertsona onuradunen % 4,4k soilik beste motatako finantzaketa jaso dute.

- **Izapideak eta komunikazioa egiteko sistemen eta tresnen hobekuntzari** dagokionez:
  - o Laguntza mota hori eskatzeko eta izapideak egiteko leihatila bakarra sortzea ondo baloratzen da (0tik 10era bitarteko eskalan 8,5 puntu).
  - o Laguntzen informazioa jasotzeko eta izapideak egiteko sistemak hobetzearekin lotutako ekarpenak jaso dira, ondorengoak nabarmenduz:
    - Informazio gehiago, ulergarriagoa eta eskuratzeko bide ezberdinak
    - Beharrezko izapideak bizkortzea, inprimaki errazagoak
    - Langile espezializatuak
    - Leihatila beste udalerritan jartzea
    - Ebazpena eta diru-laguntzen kobrantza bizkortzea
    - Izapideak Internet bidez egiteko aukera bideratzea
- Azkenik, **beste aldaketa-esparruren balorazioari eta kontrasteari** dagokionez, ondoren alderdi azpimarragarrienak aipatzen dira:
  - o Laguntzak 20 urteko antzintasuna duten eraikinetan biltzearen alde dago 10 elkarrizketatutako pertsonetatik ia 8.
  - o Bizigune edo ASAP programen bitartez alokairu publikora zuzenduko diren etxebizitzak prest jartzeko diru-laguntzei babes adierazgarria ematen zaiela ikus daiteke (% 78,1).
  - o Birgaitzeko laguntzen programetan egin beharreko aldatetekin edo hobekuntzekin lotutako beste ekarpen edo proposamen osagarri batzuk jaso dira:
    - Laguntzen izapide- eta kudeaketa-prozesuetan izapideak bizkortzeko eta zailtasun-maila murrizteko premia (ekarpenak egin dituzten pertsona onuradunen % 20).
    - Laguntzen zenbatekoa gorantza berrikusteko premia (% 16,5)
    - Laguntzak kobratzeko epeak aurreratzeko premia (% 13,8).
    - Birgaitze-lanetan inbertitzeak tratamendu fiskal hobeagoa eduki dezala.
    - Finantzaketa eskuratzeko ohiko finantzaketak duena baino interes txikiagoa eduki dezala.
    - Hedapen- eta publizitate-sistemak hobetzeko premia (% 10).

### 3.4. Finka-administratzaileen balorazioak eta ekarpenak birgaitze-lanetarako laguntzen alorrean

Jarraian aurkezten dira birgaitze-lanetarako laguntzen kudeaketari buruz EAEko Finka-administratzaileei egindako kontsultaren emaitza nagusiak.

#### A.- Diru-laguntzei buruzko informazioa eskuratzeko aukerari buruzko balorazioak eta horien kudeaketa-prozesuei buruzko balorazio orokorra

- Laguntzen kudeaketari buruzko informazioa eskuratzeko aukera oso positiboki baloratzen dute Finka-administratzaileek. Hiritarren ikuspegitik, aldiz, eskura dagoen informazioa urria dela uste dute Administratzaileek.
- Informazioa eskuratzeko sistemak hobetzeko asmoarekin, profesionalen kasuan, informazio-sistemak eta plataformak bultzatzea bereziki egokitzen da; hiritarren kasuan, aldiz, komunikabide tradizionaletan informazio-kanpainak bultzatzea.
- Laguntzak kudeatzeko egin behar diren izapideei dagokien indarrean dagoen araudia positiboki baloratzen dute Administratzaileek, eta baita kudeaketa-prozesu horiek burutzeko eskura dagoen informazioa ere. Laguntzen alderdi ekonomikoek, aldiz, balorazio negatiboa jaso dute, urriak edo desagokiak direla uste baita (kobrantza-epeak, kofinantzaketa portzentajeak eta gehienezko zenbatekoa).

#### B.- Planteatutako aldaketei buruzko balorazio espezifikoak

- Jendearen arretarako leihatila bakarra abian jartzea oso positiboki baloratzen da.
- Diru-laguntza horiekin prest jarri diren etxebizitzak, etxebizitza hutsak mugiarazteko programen eskura jartzean ados daude Administratzaile gehienak.
- Kontserbazio- eta irisgarritasun-lanetarako laguntzen kopuruak handitzea egokitzen da.
- Prozesuak arintzea eta laguntzen izapideekin lotutako epeak murriztea ahalbidetuko luketen neurriak proposatzen dira, eta baita baremoak eta zenbatekoak eguneratzea ere, aurrekontuen zenbatekoekiko eta ehun ekonomikoan duten eraginarekiko proportzionalak izan daitezten.

## 4.- AZKEN ONDORIOAK ETA IKASKUNTZAK

Abian jarritako hainbat ekimenekiko zeharkako ikuspegitik, egindako partaidetza-prozesuaren ondorengo ondorioak nabarmendu daitezke:

- Inplementatutako partaidetza prozesuan zehar egindako lanak agerian uzten du bide onetik doazela EAEn birgaitzeko diru-laguntzak aldatzeko Eusko Jaurlaritzaren aldetik aztertuak izaten ari diren hobekuntza-esparruak.
- Oro har, egoki eta positibotzat jo dira birgaitze-lanetarako laguntzetan proposatzen diren aldaketak, eta adostasun-maila handia egon da, gai horretaz, galdetutako eragileen artean (sektoreko profesionalak, tartean dauden erakundeak, laguntzen pertsona onuradunak eta hiritarrak oro har). Gainera, birgaitze-lanetarako laguntzen hasierako aldaketa-planteamendua osatzen duten ekarpenak jaso dira.
- Partaidetza-prozesuak berak harrena positiboa izan du. Oro har, parte hartu duten eragileen aldetik gogo eta interes ona egon da, bereziki positibotzat jo baitute haien iritzia kontuan hartuta izan dadila laguntza horien edukiak eta irismena zehazteko orduan.
- Eragile lankideekin eta hiritarren iritziarekin partaidetza prozesuak egitean Departamenduak duen urteetako eskarmentua kontuan hartzekoa da. Horrela, partaidetza ohiko lan-prozesu bihurtu da.

Jarduera parte-hartzaileetan landutako gai zehatzetan arreta jarritz, prozesuan parte hartu duten eragileen arteko adostasun maila handiagoa lortu dutenak izan dira ondorengo alderdiak:

- Birgaitzeko Hirigintza Sozietateak eta Finka-administratzaileak dira birgaitze lanak egiteko diru-laguntzei buruzko informazioa hiritarrek eskura dezaten bide nagusia
- Hiritarrei birgaitze premiarekiko eta etxebizitzak eta eraikinak mantentzeko premia sustatzeko prestakuntza emateko eta sentsibilizatzeko funtsezko eragileak dira Finka-administratzaileak.

- **Birgaitze lanetarako diru-laguntzak eskuratzearen jarraipena egitearen premia eta lanen egikaritzearen prozesuaren kontrol handiagoa** behin eta berriro eskatzen da.

- **Objektibazioa *versus* malgutasuna.** Hasiera batean, eremu bat lehentasunezko lan-eremutzat jotzeko bi ikuspegi hauteman dira:

- Aplikatu beharreko irizpideetan malgutasun handiagoa bilatzen duen ikuspegia: hainbat partaidek eremua bat lehentasunezko lan-eremutzat jotzeko gai izateko irizpideak malgutzea planteatzen dute.
- Beste ikuspegi batek, gehienena kasu horretan, irizpideak eta eskakizunak objektibatzea egokitzen hartzen du; horrela, premia handiagoa adierazten duten lurralde-eremuei emango litzaieke lehentasuna.

Edozelan ere, hasieran aurreikusitako osagarriak eta gehigarriak diren hainbat irizpide proposatzen da, besteak beste: eremua izendatzeko eskatzen den batez besteko adina (65 urte) jaistea, errentarekin lotutako eskakizuna eta etxebizitzaren okupazio-tasa ebaluatzen duten irizpideak ezartzea (etxebizitza hutsaren gaineko tasa).

- **Birgaitze lanetarako diru-laguntzen osagarriak izango liratekeen beste finantzaketa-bide batzuk jartzea** aipatzen da, adibidez: finantza-erakundeekin akordioak ezarriz.
- **Jendearen arretarako leihatila bakarra abian jartzerekiko** aldeko jarrera dago.
- Etxebizitzetan/Eraikinetan birgaitze lanak egiterakoan, **kontserbazioari eta irisgarritasunari lehentasuna emateko joera hautematen da energia-eraginkortasunaren kontra.**

Azkenik, partaidetza prozesuan zehar lortutako ikaskuntza nagusiak adierazten dira:

- **Birgaitze kontuan parte hartzen duten eragile ezberdinei parte hartzeko bide irekiak mantentzeko egokitasuna**, bai Departamenduak egindako planteamenduak aberasteko, bai abian jartzen diren ekimenetan sektorearen partaidetza areagotzeko.

- Hiritarrei zuzendutako **informazio eta sentsibilizazio kanpainak eta** birgaitze kontuan hiritarren preskriptore gisa ari diren eragileei (finka-administratzaileak eta BHSak) zuzendutako **prestakuntza-ekimenak indartzea eta areagotzea**, EAEko etxebizitza eta eraikin parkea birgaitzeko eta kontserbatzeko kultura sustatzeko.
- **Etxebizitzen/eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzearekiko sentsibilizazioa sustatzea**, hortaz, hobekuntza horiek epe luzean dituzten onuraz hiritarrak jabe daitezten.
- **Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea** birgaitzearen eremuan, kontu horretan parte hartzen duten eragileen arteko informazio-fluxuak optimizatzeko eta, horrela, dauden baliabideen eraginkortasuna eta kudeaketa areagotzea.